

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko maiatzak 22 / II. urtea / 25. zenbakia

Amen eta Omen



AINGERU EPALTZA


Zozoa bainaiz eta motela, aitortu behar lehenago ez nuela ongi konprenitzen zertan zen *el hecho diferencial navarro* delako hori. Zozoa eta motela ni, ez nuen uste meka-guenka bertzek baino ozenago egitea eta hemengo erakunde ofizialek eginiko edozein zirtzilkeriari 'foral' deitura paratzea asko zirenik horrako 'berezitasun' hori markatzeko garaian. Oker nintzen. Diferenteak gara, diferenteak garenz!

Cordovillan dagoen periodikuak 78 aldiz jakin erazi die bere irakurleei hondar egunetan. Nafarroak, Espainiako bertze edozein probintziak baino ordezkari gehiago igorri omen zuen joan den igandean, Peraltako markisaren beatifikazioa zela eta —portzertio, behin betikoz saildutzen dutenean, noren patroiz izanen da, pailazoena ala masokistena? Mila kolorao!— Erromako San Pedro plazan izan zen 'appening' zerutiarretara. Nafarroa ere, ordezkari ofizial gehien —alkate, lehendakari, artzapezpiku— bidali zuena. Lehenagotik, EGUNKARIAN irakurritā bagenekien, munduan, opustarren gehienezko dentsitatea metro karratuko Iruñerrian dagoela. Hau bai dela marka, eta ez 'Guinnessen' agertzen direnak.

Gehiagok ere eman dio Nafarroari estatu mailako albistea bilakatzeko egokiera. Madrilen, Donostian, Bartzelonan, intsumisioen aurkako judizioetan hondar hilabeteetan eman diren epai guziek, inkulpatua libre edo zigor sinboliko batekin utzi dute. Hemen ez, ordea. Nafarroan ez baikara makalak kodea interpretatzen eta delinkuenteak legearen zama guziaz makurteratzen. Galdegan diezaiotela bertzenaz Fermín Azkonari!

Heldu den astean, azkenik, Nafarroa gertatuko da greba orokorreko bi deialdi, 27 eta 28rako, dituen Estatuko probintzia bakarra, bertze berezitasun batekin gainera: sindikatu dei-egileetarikoa batek —sari bat asmatzaileri!— ez du greba horrek aitzina egin dezan inolako intenzio nerik. Ez 28an eta are guttiago 27an.

Zinez liluragarria nafar izatea!



## Garraio publikoa Iruñerrian

Duela hogeit bat urte, Iruñea inguratzen zuten herri txikiak —Barañain, Zizur Nagusia, Berriozar, Atarrabia— hazitzen hasi zirenean, zentru eta inguruen arteko garraioak funtsezkoak egin ziren. Izan ere, herri horietara bizitzera joan ziren frankok Iruñean bertan zuten lana, eta ordura arte soilik bidaia bakan batzuk egiten zituen konpainiak —La

Montañesa— zerbitzuak hobetu eta aniztu behar izan zituen.

Egun, Iruñerria gero eta batuago dagoenean, berriro plazan dago eskualde osoa hartuko lukeen garraioaren gaia. Iruñea erdian dagoen trafiko eta arazoak konpontzeko ezezik, bizimodu egokiago eta osasuntsuago ere lortzearen.

## Gure aukerak

### ANTZERKIA



**Nederlands Dans Theater 2** taldeak bi emanaldi emanen ditu heldu den astean Iruñeko Gaiarre Antzokian, 'Antzerki Topaketak' zikloaren barruan. Emanaldiak hilak 26 eta 27 izanen dira, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

**Kukubiltxo** taldea arituko da bihar larunbata Jaunsaratseko frontoian, arratsaldeko bostetan. 'Jalgi hadi dantzara' obra antzertuko dute, Udaberri Jira Bira izeneko zikloaren barruan.

**Gorakada** taldea arituko da igandean, maiatzak 24, Olagueko pilotalekuan. 'Atxis pum' izeneko obra eskainiko dute, arratsaldeko sei terdrietatik aurrera.

**Trapu Zaharra** antzerki taldea Galar Zendea arituko da 'Cobriexpress' bere lanarekin, heldu den larunbatean, hilak 23, eguerdiko hamabietan. Beriain-Potasasen izanen da emanaldia, Nafarroako Gobernuak antolatatu duen Udaberri Jira Biraren programazioaren barruan.

**Kukubiltxo**, taldeak Arantzan arituko da 'Jalgi hadi dantzara' lanarekin, herrian zehar, heldu den igandean, hilak 24, arratsaldeko bostetatik aurrera.

### ERRAN DUTE

**Gure herriko kultura gu geu gara».**

### Nafarroako musika taldeak

«Lizuniagako mugan Herri Urratsen egunean egin zuten adarra jotzeko izan zen».

### Bortzirietako alkateak

«Lizarrara bapozeko 'estrella' batean joan nintzen, eta gurasoak atzetik, zaldiz».

### Utergako Camilo Kaputxinoa

«Euskararen Legea azaroan edo aldatuko da, eta hori uda erdian dagoelako».

### Iñaki Cabases EAko buruzagia

## San Kristobal txirrindulaz

Aste honetarako kotxeak ahaztu eta txirrindula hartuko dugu, barruan ditugun nerbio eta tentsio horiek apurtzeko. Eta inork trabarik izan ez dezan, hiriburutik gertu, eta kilometro gutxi. Hemen Indurain edo Lejarreta ez dela izan behar garbi uzteko.

Iruñetik bertatik aterako gara, beraz, Burlatako gurutzeraino. Bide hau, Arreko gurutzea hartu bitartean izanen da makurrena, trafiko dezente izaten baita beti. Asteburuan eginez gero, lasaigo egiteko parada izanen duzue, baina.

Gero, Arretik aurrera ia ez dago trafikorik. Desnibelak ibilbide osoan leunak dira, baina badaude luzeak direnak.

Ibilbide osoan zitu landa zabalak daude. Dena dela beti dugu guri begira, zaindari aparta, San Kristobal mendia pixkanaka alde guztietatik ingurutzen dugula. Udan eguzkilore landaketa zabalak daude. Halaber, bideko aldeetan badaude zuhaitz medite-



rraneo franko.

Gelditzeko toki aproposak ere badugu bidean. Orikaingo 'hondartzan' edo Ezkabako kanpinaren parean badago atsedearen har-

tzeko toki aproposak, baina ikustekoa da benetan Arreko Trinitatea Ultzama ibaiko ostatu eta basilika, Atarrabiako muga bertan.

### ZINEMA



**Abereen etxaldea'** izeneko filma izanen da ikusgai igandean, hilak 24, Lekunberriko 'Mitxasenean', arratsaldeko bostetatik aurrera. Ondoren Felipe Uriarte mendigoizaleak diapositiba emanaldia emanen du, 'Peru, Inkeen herria' izenburupean. Arratsaldeko 20.30etan hasiko da emanaldia.

**'Los chicos del barrio'** ('Auzoko mutikoak') filma izanen da ikusgai asteburu honetan Leitzako zineman, antolatatu den Aste Kulturala dela eta.

### ERAKUSKETAK



**Miguel Bergasa** argazkilari iruindarraren lanak daude ikusgai Iruñeko Hiritar Eragintzako Erakustokian. Latinoamerikan

egindako bidaietatik atera dira argazki hauek, bakoitza begirada luze bailitzan. Izan ere, Bergasaren argazkiak begirada sakonak dira, bere atzetik, Salgado eta beste argazkilarien ildoari jarraiki, herri eta pertsonen nortasuna ere erakusten baita argazki bakoitzean. Erakusketa hilaren 31ra arte egonen da ikusgai, 18.30etatik 21ra bitarte lanegunetan, eta goizeko 12etatik 14ra bitarte jaiegunetan.

### ASTEKO PERTSONAIK

#### Adolfo Araiz




Politikaria

#### Jose Mari Bakero



Futbolaria

#### Jose Maria Rodriguez Otxoa



Hizkuntz Politikarako zuzendaria

**H**Bko parlamentariak tranze txarra pairatu behar izan zuten asteazkenean Nafarroako Parlamentuan, bertatik aterazi nahi zuten foruzain batekin liskarrean sartu zenean. Biak, Araiz eta foruzaina, aulki zenbait bota ondoren, lurrera joan ziren, han zeudenen harridura eta lotsarako. Araiz eta bere taldekideek Salto del Negroko presoan aldeko entzierroa burutzeko asmoa zuten, baina Otano parlamentuko presidentek handik egozteko agindua luzatu zion foruzainari. Honek, ezin jakin kemenaren indarrak edo Araizekin kontrako zerbait zuelako, bete zuten agindua.

**G**oizuetarrak, bere taldekideekin batera, Europako kopa eskuratu zuten asteazken gabez, Barcelonak Wenbley futbol zelaiaren jokatu zuten final zoragarrian. Txoko hau Goikoetxearendako ere bada, jakina, biek parte zuzena izan bait zuten iazko liga irabaztean. Horiakin batera Zubizarreta eta Begiristain gipuzkoarrak eta Salinas eta Alexanko bizkaitarrak ere dira garaienaren partaide zuzenak, taldeari pertsonalitatea ematez gain, beren jokua, askotan, talde osoaren ardatza izan bait da. Euskaldunena ere, beraz, bada kopa handi honen zatitxo bat.

**E**uskararen Legea aldatzeko «giroa bazegoela» azaldu zuten joan den asteartean Oinarriak taldeak antolatutako mahainguruan. Cabases eta Petrizan EAko parlamentarioek azaldutakoarekin batera, hezkuntzari dagokion zenbait artikulua aldatzeko, beraz, urte honen amaiera baino lehen. Berezi ki esanguratsua dira Otxoaren adierazpenak, bere zuhertasuna eta diplomazia ezagututa zerbait dagoela, egon, garbi bait dago horrelakorik esanez gero. Berekin batera Mari Karmen Garmendia eta Miquel Reniu kataluniako zuzendaria egon ziren.

### MUSIKA



**Inmaculate Fools** talde britaniarrak joko du heldu den larunbatean, hilak 23, Gareseko dantzalekuan, 11etatik aurrera. Sarreraren prezioak, 2.000 pezeta.

**Tapia eta Leturia** trikitilariak ohizkoak egin dira jada Nafarroan, eta asteburu honetan ere ikusteko parada izanen da. Uharteko plazan joko dute heldu den igandean, hilak 24, gabeko bederatzietatik aurrera.

### MINTZALDIK



**Hogei urtez euskal umorean'** izeneko hitzaldia izanen da gaur ostirala, arratsaldeko 20.30etatik aurrera, Lekunberriko 'Mitxasenean' Kultur Etxean. Bertan Peter eta Xabier, ETBko 'Funtzioa' saioako aurkezleak izanen dira, bertako Larraungo Euskara Zerbitzuak antolatu duen Larraungo Udaberri Kulturaren barruan.

### KIROLA



**Elkoatzera** mendi ateraldia antolatatu du Nafarroako Kirol Elkartek hurrengo igandeko, hilak 24. Handik Baigurara joan dira mendigoizaleak, eta ondoren zeharkaldia egingen da Abaurraineraino. Izena emateko Jauruta kalera, 78, joan beharra dago, arratsaldeko zazprietatik bederatzietatik bitarte.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratiaio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

## Hamaika eta bat orduko saioa

MATTIN KAPITANSORO / IRUÑEA

Euskalerria Irratiak hamabi orduko ez ohizko saioa antolatatu du heldu den 29rako, ostirala, irratitik kanpoko jende frankoren partaidetzarekin. Ahalegin berezi honekin, eta hurrengo egunean ospatuko den Oinarriak-en 'Ados eta Zinez' kanpainaren azken eguna iragarri eta berotzeaz gain, bultzada berri bat eman nahi diote irratitari, Iruñerrian egun duen eragina bizkortzeko.

Saio erraldoi hau egiteko asmoa, Kike Diez de Ultzurrun irratiko kazetariak azaltzen duenez, lizentzia ukatu zitzaionetik irratia bizi izan duen egoerak bultzatuta izan da. «90ko udazkenetik hona lizentziaren bila eta eske ibili gara beti, eta, behar bada, ez gara behar hainbateko indarrez saiatu eguneroko programazioan. Orain, eta lizentziaren gaia bazterrean utzi gabe, ahaleginduko gara eguneroko programazioa hobetzen, eta hori nabaritu da udazkenetik aurrera, programazio berriarekin».

Programazio berri honetarako ideiak badituzte, izan, eta orain dauden irratsaioak zokoratu gabe, epe zehatz batzuren barruan

ko saioa dela eta izan duten erantzun ona ikusita. «Iruñerrian, euskarazko irratigintzaren publizitate arloa ez zegoen batere landuta, eta aproba egin dugu eta ikusi dugu posible dela. Ondotik finkotasuna emanen diogu arloari».

### LIZENTZIAREN GAIAREN EZPATA

Euskalerria Irratia egun Iruñerria mugatzen da, eta lehendabiziz errezepzioa hobetu nahi badute ere, zabaltzeko ideia dute buruan, Lizarrarantz. «Lizarran behar handia dago euskarazko irratia bat izateko —dio Kikek—, kontutan hartuz ikastolaren lana eta euskaldunen kopurua, gero eta handiagoa. Hori asmoa da, baina, jakina, gauza asko hartu beharko dira kontutan, oso garestia baita horrelako proiektu bat».

Lizentziaren gaia, baina oraindik hor dago, baina bere garrantzia gutxietsi behar dela azpimarratzen dute. «Uste baino ezpata txikiagoa da, eta bada garaia mamutzar hori uxatzeko. Hain zuzen ere, horretarako biderik egokiena da irratia finkatzea».


**E**uskalerria Irratian garbi utzi dugu euskarazko irratia posible dela Iruñerrian. Lizentziarik gabe emititzen ari gara, 'tolerantzia giroaz' baliaturik, eta orain irratia bizkortu eta bere eragina handitu behar dugu.

emisio orduak gehitzea da asmoa. Horretarako funtsezko oinarriak bertako informazioa eta publizitate hobeki landuta izanzen liriteke. Bertako langileek egindako programazioaz gain ere kolaboratzaile gehiago eskuratu nahi dute, astelehenetik ostegunera banda zehatz bat betetzeko. Horrekin batera saio berezi gehiago egingo dute.

### IRRATIAREN BIGARREN ETAPA

Hain zuzen ere, irratia 'bigarren etapa' izango da honako hau, Kikereren esanetan. «Lehendabizikoan garbi utzi dugu euskarazko irratia posible dela Iruñerrian, batzuek zalan-tzan jartzen zutena. Lizentziarik gabe ere emititzen ari gara, eta dagoen 'tolerantzia giroaz' baliaturik, orain bizkortu egin beharra dago irratia eta bere eragin soziala handitu».

Bigarren etapa honetan publizitateari eman nahi diote berebiziko garrantzia, orain arte gehiegi landua ez zutena. Horretarako espreski lagun bat paratuko dute lanean, eta baikor dira erronka berriaren aurrean, batez ere 29ra-



### Egitaraua

**8.30etatik 9ak bitarte:**  
'Bertatik bertara' goizero egiten den albistegia, Iruñerria eta Nafarroako berriekin.

**9etatik 10ak bitarte:**  
Egunak ekarriko dituenaren berri izanen da, jende ezagunaren agurrekin. Bertan ere Oinarriak eta saioaren beraren asmoaren berri izanen da.

**10etatik 11.30ak bitarte:**  
Haur eta gaztetxoendako saioa izanen da, Iruñerriko eskola elebidun gehien partaidetzarekin. Unitate didaktiko bezala planteatuko da saioa, eta klaseak irratiarekin batera antolatuko dira.

**11.30etatik aurrera:**  
Gazte, lanbide heziketa eta unibertsitateko gazteekin saioa egingen da.

**13etan:**  
Euskadi Irratiko albistegia.

**13.30etatik aurrera:**  
Aurtengo Udako Euskal Unibertsitateko (UEU) aurkezpen ofiziala egingen da irratian.

**14etatik 15etara:**  
Baztango Xorroxin irratiarekin egingen da konexioa, hango berriak jasotzeko.

**15etatik 16ak bitarte:**  
Koldo Pastorrek zuzendutako Paulino Otamendi kamara taldeak grabatutako kontzertua izanen da entzungai.

**16etatik 17.30ak bitarte:**  
Mahainguru izanen da 'Erligioa gaur egungo gizartean' lemapean. Bertan gaurko elizaren korrante ezberdinetako partaideak arituko dira solaskide.

**17.30etatik aurrera:**  
Denborapasak izanen dira: soinu-jole, trikitilari, irrintzilariak eta abar izanen dira irratian.

**18.30etatik aurrera:**  
Goizean Lesakan izanen den betso-lari gazteen txapelketarako kanporaketaren berri emanen du Lontxo Aburuzak eta bertan botatako bertsoak entzun ahal izanen dira.

**19.30etatik aurrera:**  
Umorezko saioa izanen da Pello Argiñarena eta Mikel Lakastarekin.

**20.30etatik aurrera:**  
Egunari amaiera emateko, saio musikala aurkeztuko dute Toño Muro eta Zara 'Balerdi-Balerdi' taldeko partaideek.

## Garmendia, Rodriguez Otxoa eta Reniu Iruñean elkartu ziren

A.B. / IRUÑEA

Oinarriak taldeak antolatutako 'Ados eta Zinez' kanpainaren barruan, eta zikloari, hain zuzen ere, hasiera emateko, 'Administrazioaren papera berarizko hizkuntz berreskurapenean' izeneko mahainguru izan zen astearte arratsaldean Nafarroako Museoa. Jende franko bildu zen horretarako, partaideek horrela merezi bait zuten: J. Maria Rodriguez Otxoa Nafarroako Hizkuntz Politikarako Zuzendaria, Mari Karmen Garmendia Eusko Jaurlaritzako sail bereko zuzendaria eta Miquel Reniu Kataluniako zuzendaria izan ziren solaskide.

Goizean Sainz lehendakariordearekin bildu ziren hori zuzendariak, eta Alli lehendakaria ere agurtzera hurbildu zitzaien. Bileran honetan, baina, ez zen garrantzizko gairik tratatu.

Mahainguru baino lehen, so-

lasaldi laburra izan zen hiru zuzendari eta kazetarien artean, eta bertan intereseko zenbait galdera luzatu zitzaizkien.

Mari Karmen Garmendiari euskarari buruz Buesak egindako azken adierazpenez itaundu zitzaion. Zuzendariak esan zuenez hizkuntzaren senitmentuak ez dira mail berekoak ez gizartean ez politika mailan ere, «baina ahalegin handia egin behar da euskarak benetan batzeko, ez bakarrik teoria mailan. Nire ustez Hizkuntz Politikak denok onartuta beharko luke izan, eta alderdiek ahalegin izugarria egin beharko lukete beren baitako esparru horretatik askatzeko. Batzutan gehiegi behartzen dugu euskara».

Nafarroan indarrean dagoen Euskararen Legearen balizko aldatetari buruz, oso diplomatikoa agertu zen Garmendia, «Nafarroan erabaki behar den zerbait bait da». EAeko zuzendariak ere bere



Nafarroako Museoa izan zen mahainguru.

JOXE

iritzia plazaratu zuen Oinarriak taldeari buruz, eta «mesedegarri oso» erizteaz gain, beharrezkoa ere bazela azaldu zuen.

Rodriguez Otxoa Nafarroako zuzendariak ez zuen komentatu nahi izan egunotan Nafarroako Parlamentuan dagoen eztabaida, Euskararen Legea aldatzeari buruzkoa. Otxoak «kargu tekniko-

tzat» jo zuen bere eserlekua, eta ez zuen gaiari buruzko adierazpenik egin nahi, «nere iritziak guztiz pertsonalak bait liriteke». Hala ere, garbi utzi zuen «legeari egokitu beharra dagoela».

Rodriguez Otxoak, baina, lege zabal batekin «lan hobea» egin litekeela adierazi zuen, «batez ere hezkuntza mailan».



Garraio publikoa Iruñerrian

**I**ruñerriko garraio publikoa bertako biztanleen aspaldiko nahia da, bereziki zentrutik kanpokondako. Gaia, izan ere, zaharra da, duela hamalau urte sortu bait zen, inguruko herriak hartzen ari ziren

neurriak antzeman orduko. Mankomunitateak gaiaren ardura hartu zuen duela lau urte, baina orduan egindako txostena ez da inoiz erabili. Egun, lanean ari da berriro, eta orduan bezala, finantzaketa da ara-

zoz garrantzitsuenetakoa. Batzuek enpresa publikoa eskatzen duten bitartean —Batzarre, kasu, antolatu berri duen kanpainan—, oraingo bi enpresak batzearen alde agertu da erakunde.

## Iruñerriko azken 'villavesa'

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Iruñerri osoa hartuko lukeen garraioaren gaia frankotan paratu da mahai gainean, eta beste hainbestetan ahaztu. Alderdi politikoak, garraio enpresak eta egunero autobusak edo autoak hartu behar dutenak bat datoz plagintza sakona egitearen beharra azpimarratzen, baina arazoa zail samarra ere bada, hain zuzen ere orain arte arlo honetan deus gutxi egin delako.

Nafarroako biztanleen erdia biltzen duen zona honetako garraio publikoa, autobusen bidez egiten da soilik. Ez dago ez inguruetako trenik, ez metrorik, ez tranbiarik. Bi enpresa arduratzen dira garraio osoaz: COTUP eta La Montañesa. Biak defizitekin, dirulaguntzak jasotzen dituzte udaletatik.

Gaia azken urteotan errepide eta zerbitzu arloan Iruñerrian egin diren hobekuntzen ildotik atera da berriro kalera. Gauza jakina da azpiegitura frankotan zona honek dituen abantailak baina ez da horrelakorik gertatzen garraioekin.

Horretan eragin handia dauka hiriburuak eta bere inguruek azken ur-

teotan izan duten biztanleriaren bilakaera izugarriak. La Montañesa, lehen, Burlata, Berriozar, Zizur Nagusia eta antzeko herri txikiak garraioez arduratzen zen, bertan bostehun inguru biztanle zirenean. COTUPek Iruñean barnako bideen ardura hartu zuen.

Hala ere, Iruñerria, inoiz baino gehiago, handitzen ari da, arazo berberekin bere herri guztiendako, eta aterabide bateratuak ere eskatzen dituena. Mankomunitatea, egun, lanean ari da txosten batean eta Javier Lekunberri bertako bozeramaleak azaldu duenez, 93rako zerbitzua osatuta egongo da. «Txosten hau lanearako abiapuntu baino ez da, eta hortik aterako da proiektu ofiziala».

Orain arte egindakoak, baina, ez die benetako arazoei eusten,

eta gogoeta zenbaiten bilketa baino ez da aipatu txostenean. Lehendabiziko azterketa serioa duela bi urte egin zuen mankomunitateak berak, Emilio Morrasen zuzendaritzapean, baina «atzeratuzat» jotzen du mankomunitateak.

Esan bezala, oraingo txostena lanerako proposamen gisa erabili nahi du mankomunitateak. Bertan egungo egoeraren azterketa egiten du, ondoren hartu beharreko neurri zehatzak proposatu ahal izateko.

Egungo egoeraren berri ematerakoan, udal eta Gobernuaren arteko koordinazio falta azpimarratzen da lehendabiziz. Ez dago erakunde bakarra Iruñerriko hirigintza eta garraioa koordinatzeko, eta honen egoera oso txarra da, antzeko ezaugarriak dituzten Europako beste zonatakoa baino askoz txarragoa.

Hori dela medio, eta amankomunitata dauden beste zerbitzuen balorazioa oso ona bada ere, garraioarekin ez da horrelakorik gertatzen, eta herritar gehienak uste du aldaketa beharrezkoa dela. Txostenean agertzen denez, horren arazoia epe luze-ko estrategiak burutu ez izana da.

Hori dela eta, zenbait oinarri paratzen da garraioaren gestiorako. Lehendabizikoa, Administrazioak dituen ahalmenak bateratzea. Aipatzen denez, mota honetako garraio publikoak derrigorrezkoa du erakunde bateratu baten partehartzea. Horrela, Mankomunitateak egun udalen eskuetan dauden ahalmenak hartuko litzuke.

Bigarren ardatza garraioaren finantzaziorari buruzkoa da. Kontutan harturik egun ateratzen diren etekinak, Administrazioen dirulaguntzak ezinbestekoak dira. Horrela, defizit hau estaltzeko Nafarroako aurrekontu orokorretatik ateratzea proposatzen da txostenean, edo, beharrezkoa izanez gero, Estatuko Aurrekontu Orokoretatik. Gainontzekoa Iruñerriko udalen laguntzarekin beteko litzateke, eta tarifa berezi baten bitartez.

Halaber, eta hirugarren oinarri



Erakunde gehienak bat datoz Iruñerri osorako garraio publikoaren beharraz.

JOXE

bezala, garraio publikoa erabili eta bultzatzeko konpromezu finkoaren beharra azpimarratzen da. Azkenotan oso zabaldua dago hiri askotan barneko garraioaren gaia. Hiri handietan ibilgailu partikularrak larregi erabiltzen direla eta, azterketa eta eztabaida publiko sakonak izan dute toki frankotan. Iruñerrian, baina, ez da horrelakorik gertatu, eta kontzientziazio falta azpimarratzeko da.

Txostenak komenigarri deritzo hiri hauetan jadanik erabilitako ideia eta aterabideak aprobetxatzeari, eta neurri eraginkor-rrak hartzea eskatzen da biziki, «bestelaz aurreko bi puntuek ez bait lukete eraginik izanen».

Aztartzeko azkenengo gaia eskaintzaren kalitatearena izango litzateke. Garraio kolektiboak

pribatuaren adinekoa beharko luke izan, bai kalitatea bai erosotasunari dagokionez. Horretarako beharko liratekeen neurriek finantzaketa publikoaren igoera nabarmena eskatuko lukete.

Txostenean, finean, gestio ez zuzenaren aldeko apostua egiten da. Hau da, enpresa ezberdinekin kontratuen bidez.

Hau da, hain zuzen ere, punturik eztabadagarriena. Garraio publikoa egiteko bi aukera daude: kontratu bat egitea hor lanean diharduten bi enprekin, edo, biak batuz, enpresa publiko bat sortzea. Hain zuzen ere garraioari buruz egindako txosten serioenak, Morrasena, lehendabizikoaren aldeko apostua egiten du.

Duela gutxi berriro plazaratu da gaia, Batzarrek Iruñerriko Garraio Publikoaren Mankomuni-

tatea osatzeko egin duen deiagatik. Batzarrearen proposamena finantziaketa publikoa da, gobernu eta udalen artekoa.

Patxi Urrutia bertako partideak azaldu duenez, «horrelako proiektua enpresa pribatuak eramanen baditu aurrera, zerbitzuko gaiak beti bigarren mailan geldituko dira, askoz garrantzi handiagoa izanen bait dute langileen eskubideak eta etekinen kontuek».

Arlo guztietan nolabaiteko adostauna badagoela ematen du, baina horrenbeste interes biltzen duen arazoaren zailtasuna ere berearekin dakar gaiak. Udalen arteko ezadostasunak, enpresak, finantzaketa arazoak... Mankomunitatearen txostenean 93ko ekainaren 1erako dago paratuta data. Batzuk ez dute sinisten.



Garraio publikoa Iruñerrian

## Mankomunitatearen txostena, «atzeratuta» erabili gabe


P.U. / IRUÑEA

Iruñerriko garraio publikoa osatzeko lehendabiziko saioak duela hamalau urte sortu ziren, lehendabiziko hauteskunde ondotik. Lan bat aukeratu zuen Batzarre taldeak orduan, baina ez zuen aparteko oihartzunik izan, «Iruñeko jendea oraindik ez bait zegoen hortaz kezkaturik».

Orain dela lau urte Iruñerriko Mankomunitateak bere esku hartu zuen gaia, eta txosten bat prestatzeari ekin zion, Esteban Morrasen zuendaritzapean. Hauteskunde ondotik, baina, lana berriro ahaztu zen, nahiz eta zenbait akordio garrantzitsu lortu ziren. Joan den urtean mankomunitatearen aurrekontuetan lan hau bukatzeko partida sartu zen, baina eztabaida berriro ere guztiz

gelditu zen. Lan honetan, sakona oso, egoeraren azterketa eta trafikoa ordenatzeko proposamen zehatzak biltzen ziren. Hauek aurkeztu zitzaizkien bi autobus enpresei, eta haien erantzunak ere jasoz ziren, baikorrak eta aldekoak mamiari zegokionez. Hala ere, elkarrizketa eta proiektua bide onetik bazihoan ere, bertan behera utzi zen. Mankomunitatearen esanetan, «atzeratuta dago», baina pentsatzekoa da erreferentziatzen hartuko dela edozein proiekturako.

Proiektuak zenbait sailetan banatzen zuten azterketa, eta sareari dagokionez, kasu, lehendik zegoen sareak irautearen alde agertzen zen, kontutan hartuta jendearen artean zuen onespina. Hala ere, eta bidaiaren jeitsierari erreparatu ondoren, txostena au-



I. MARTIARENA



Ibilgailu pribatua gutxiago erabiltzea da helburuetako bat.

JOXE

tobusen arteko denbora gehitzearen aldeko iritzia plazaratzen zuen. Bestalde, zenbait sare desargatzen ziren, antzeko ibilbidea batek baino gehiagok egiten zuenean. Beste zenbait aldaketarekin batera, txostenean aipatzen zenez, sarearen % 81 hobetuko zen.

Enpresekin lortu beharko zuen hitzarmenari dagokionez, hasieratik baztertu zen enpresa publiko osatzeko aukera, eta lan egiteko proposamena orduan —eta oraindik— zeuden bi enpresen arteko harreman eta elkarlana

zen. Horretarako parametro askorekin egin zen lan.

Finean, enpresa bakoitzak kontratu bat egin behar zuen mankomunitatearekin. Gutxienezko benefizio tasa bat paratuko zen, eta urteren amaieran, emaitzen arabera, etekinak banatu edo berdinduko ziren. Mankomunitatea txartelak, abonoak eta abarren salmentaz arduratuko zen.

Txostenak, beraz, ia mutur guztiak lotzen zituen. Hala ere, bi beharrik azpimarratzen zituen: transporte publikoa zuzendu eta antolatzeke erakunde bat; eta

hortik aterako ziren defizitak ongi estaltzeko modua. Erakundeak, lehen eta orain ere, mankomunitatea da, aditu guztien arabera. Hala ere, erakunde honek ezin die aurre egin hortik aterako liratekeen defizitei.

Hortan da gakoa, baita proiektu honetarako ere. Bi aterabide planteatzen ditu: mankomunitateak berak jasotzea autonomia ekonomikoa; edo erakunde lokalak zein Nafarroako Gobernutik ziurtatzea defizitak estaltzeko fondoak. Bi kasuetan konponbidea ez zen oso zaila izango.

mintzoak

## Mazantini

Badaukat nik lagun bat, ironiaz eta malezia pixka batez, zozo txuria inon aurkitzekotan Nafarroan aurkituko zuela esaten duena. Nik farre egin ohi dut entzuten dudanean, eta gehiago ikusten diot ateraldiari piropotik ere daukana beste ezer baino. Bestalde, Euskal Herrian zozo txuria beltza baino ugariago delakoa aspalditik susmatzen hasia naiz, eta alde horretatik, ez diot hain harrigarria denik erizten. Besteak ez bezalakoa izateko gogo sakonak eta sanoak eragin zuen mutazio genetiko bortitz hau zozoetan, biologoek diotena egia bada. Besteak ez bezalakoa izatea eskubidea da, eta beharrezkoa gainera itxurazko pagoadarra erdietsiko

bada; zozo bat beste batekin alde-ratu eta ez direla inoiz bi berdinak aurkitzen, bakarrik, biak beltzak izanik ere. Zer esanik ez Euskal Herrikoak badira. Bi txinatar berdin berdinak inoiz ez diren bezalaxe, biak txinatarrak izanda ere, eta barkatu ikutu xenofobia.

Mazantini —Cinzano eta Martini— Elgoibarren jaiotako torero zen, 1884 urtean alternatiba hartu zuena, Frascueloren eskutik. Lagartijok berretsi zion alternatiba handik gutxira. Diotenez ez omen zen oso torero kalitate handikoa —kalitatea beti da eztabaidagarria; La Maestranzan, esate batera, makina bat jendeke esango dizu Espartacoren tenporada osoak ez duela balio Curroren paseilo bakar batek balio duena— eta estokeatzaile aparta izateari zor dio sona eta tauromakiaren historian lekua irabazia. 'Volapie' delakoaren maisua omen zen; badakizue, zezena kieto dagoela, harengana egin eta estokez jo:

jokabide arriskutsua era erasotzailea, inondik ere, kementsua. Bestalde, gizon politikoa ere ba omen zen, eta Guadalajarako Gobernadore Zibila izan zen. Madril Polizian Komisario egiten zuela hil omen zen, nire datuak zuzenak badira.

Ez galdetu neri nolatan egin duen Mazantinik estokeatzaile izatek Nafarroako zozo txuria izaterainoko jautzia, ez eta zein zezen estokeatzeko asmoa (estokeatu: zezena estokez zauritu, dio Maria Molinerren hiztegiak) duen. Muletari dagokionez badi-rudi natural klasikoaren esentzia sakona berreskuratzen ahaleginduko dela, inoiz igela-jautzia —igela, nola ez— egiteari ez diolarik uko egingo. Edozein kasutan ere, bestelako politika-bideak hartzea estimatuko nuke.

Nik ere izenpetzen dut Pamie-larekin denok zorretan gaudelakoa. Mazantini aldizkariak etxeko marka ere agerian du; baliabide

gehiegizkorik behar ez duen dotorezia eta arrazoi garbi batzu aldarrikatu beharra, besteak beste. Ez da gutxi, eta horretaraino konforme. Huskeria batzuetan ez horrenbeste; literatur hizkuntzaren autonomia masmedietako (moral behar da, gero, edozer 'euskal' 'mass' horrekin lotzeko!) uestezko pobrezia kontrajarriz baieztu beharrean, adibidez. Baliteke euskal masmediak —ETB, Euskadi, Euskalerrria, eta Xorroxin Irratiak; Ttipi-Ttapa, Argia, EGUNKARIA, Xiberuko Botza etabat honez gero luze bat— pbreak izatea. Horien aurka eraturako desmarke artistikoak artista handiegirik emango ote duen dunda daukat, ordea.

Hor dago, esaten dudanaren adierazgarri, masmedia horietako batek Mazantiniri buruz jaurtikitako adjetiboa: periferikoak. Izan balitz, «urrats erratu bat Parnasorako bidean», edo eta «azken kantua ezinezko modernitatearen

bila», zerbait espero liteke. Baina ez, «periferikoak». Horren pobre, esango dute batzuek, horren funtzionala, besteak.

Horrela ezin da; Euskal Ilustrazioa merezi zenuten, neska-mutilak. Lastima mende luzeetan gure maisurik onenak gehienbat San Isidorako joera erakutsi duten, eta ez diren hemengo eskolaz gehiegi arduratu.

Konturatzen naiz garai hauetan kultur-eliteei ikasgaia esplika dezatela eskatzea obszenidada dela, euskal masmedia —eta zinea, eta administrazio-hizkera, eta itzulpengintza, eta...— pobre hauen sorrerak eta garapenak zeharo liluratuta naukala konturatzen naizen bezala. Barka, irakurle, artikulu nahasi hau; baina zenbait euskal zozok (beltza? txuria?) esaten omen duen bezala, nolako sakea, halako errefera.

Agian ez zela nire egitekoa sake hau txapa gainera ekartzen saiatzea, bakarrik.

## Gazteendako Zokoa

**Zata arrunta**  
*Caprimulgus europaeus*  
Artaldean artean ibiltzen da  
Lurrean erruten du  
Ederki ezkututzen da



## Benetako gautxoria

Txori honek gabaz aritzea du gustoko, eta ez dauka aparteko erakargarritasunik itxura aldetik, baina izen franko jasotzen ditu Nafarroa osoan. Horrek erakusten du oso ezaguna dela, batez ere ardi eta ahuntzen artean aritzeko duen ohituragatik.

Izan ere, esaera zaharrek diote esnea edaten duela animalia hauen errotik, baina, bistan denez, faltsua da. Ordea, artaldeek mugitzen dituzten insektuak jaten ditu.

Arratsera arte ia ez da mugitzen zata arrunta. Orduan hasten da bere kantarekin, marmar sakon baten antzerakoa, eta hegan egiteari ekiten dio, insektu bila. Harritzekoak dira bere neurriak —50 zentimetro hegal-zabalea—, batez ere bere tamaina kontutan hartuta —80 gramo—.

Bere iharduera arrastirien eta egunsentiaren aldera izaten da bereziki, egun osoz enborran edo lurrean ematen bait du, kierto. Negu beltzean ere ez da sobera mugitzen.

Ederki gordetzen du bere burua sasi eta zuhaitzen artean, horretarako kolore eta itxura oso aproposa bait du, eta lurrean erruten ditu, kabirik gabe.

## Zorterik gabeko txakurra

IDURRE HUALDE

Bazen behin neska bat, bere gurasoekin bizi zena. Familia oso aberatsa zen eta neskak gurasoei zaldi bat eskatu zien. Gurasoek, bere urtebetetzea hurbil zegoenez, zaldia erostera joan ziren. Leku askotan bilatu zuten zaldia, baina denak oso txarrak ziren, hezi gabe zeudelako. Orduan gurasoek neskari txakur bat erostea erabaki zuten. Erosi eta etxera eramane zuten.


Neska etxera joaterakoan txakurra eman zioten. Neskaren aurpegian poza ikusten zen baina bere barruan txakurra gorrotatzen zuen. Neskak txakurra hartu eta bere gelara sartu zuen. Sartu bezain laister txakurra armairu txiki eta ilun batean ezkutatu zuen. Baina txakurra, ezin zuela atera eta, itotzen hasi zen.

Orduan, norbait entzuteko, zaunkaka hasi zen. Etxean lan egiten zuten bi garbitzaileek entzun eta armairutik atera zuten. Gero, neskaren ohe gainean utzi zuten. Txakurra bere senara itzuli zenean neskaren gauza guztiak nahasten hasi zen.

Neska etxera itzuli zenean bere gelara joan zen. Gela horren nahasia ikustean txakurra hartu, etxeko atera joan eta ostikada batez kalera atera zuen. Txakurra, tristeturik, beste jabe baten bila joan zen.

Neskak, bitartean, txakurra alde batera utziz bere gelara igo eta gauza guztiak bere gurasoak etorri baino lehen biltzeko agindua eman zuen.

Txakurra, bitartean, kale estu eta errepide arriskutsuetatik zebilen. Egun batean ezin izan zuen lortu eta kale batean lo egin zuen. Txakurra hotz handia pasa zuen egun hartan. Hurrengo egunean, txakurra esnatu zenean, berriro ere jabe bila hasi zen. Txakurra kaletik zihoan eta txakurtegiok hartu zuten. Txakurtegiara eramane zuten txakurra gosea kendu zuen eta berriro ere jabe bila joan nahi zuen baina kaiolan zeukan harresiak oso gogorak eta sen-



doak ziren. Txakurra, ezin zuenez atera, negarrez hasi zen. Txakurtegioko langileek, horrela ikustean, txerto bat jarri zioten. Txakurra lo seko geratu zen. Txertoak, baina, ez zuen denbora asko iraun eta esnatu zenean konturatu zen langileek atea irekia utzia zutela.

Aukera hori ezin zuen galdu eta ihes egin zuen. Kanean hiriko alkatearekin topo egin zuen. Alkateak txakurra hartu eta etxera eramane zuen. Bere etxean ongi onartu zuten txakurra. Alkatea oinean min zeukala konturatu zuen, baina hala ere ez zion ezer egin txakurtxoari. Hurrengo goizean txakurrari egunkaria eta zapatilak eramateko esan zion alkateak, baina txakurra oinean mina zuenez ezin izan zion eramane. Alkateak mina zuela jakin arren ez zion sendatzen.

Alkateak txakurra hartu eta ostikada batez kanpora atera zuen, ez bait zion kasurik egiten, bere ustez alfer hutsa zelako.

Kanpora atera bezain laister behartsu batzuekin topo egin zuen. Behartsuek oina gaizki ikustean, zeukaten zapirik hobereak hartu, makil bat hartu eta oina sendatzen hasi ziren. Txakurra ongi eskertu zuen. Behartsuen artean bazen amona bat eta amona txakurra ikustean maitekiro laztandu zuen. Txakurra bere bizitzako egunik hobereak pasatzen ari zen.

Ez zegoen aberatsen etxean eta hala ere aberatsen etxean baino erosoago sentitzen zen, erregeak baino hobeto egiten zuen lo lastoan gainean eta garbitzaileek baino hobeto tratatzen zuten. Behartsuek familiako beste bat izango balitz bezala tratatzen zuten.

Baina egun batean, txakurra behartsuentzat janari bila joan zen. Bide zabal bat pasatzen ari zen momentuan bi kamioi pasa ziren eta txakurra hil zuten. Behartsuek txakurarentzat hileta polita prestatu zuten.



## BASAJAUN

**Z**e jenio txarra egin dudan aste osoan zehar! Kartutxoren batekin edota 'Coke' edari arraro horren latatxoren batekin topatu gabe ezin izan dut lasai ibili.

Handik zebilen ardi bati gizakumeak nahiko zikinak zirela esan nion, eta berak, parrez, horrela erantzun zidan. «Jo, jo, jo, ez al dakizu inork ez diela esan nola egiten diren gauzak? Haien eskoletan asignatura baten faltan daude: Ingurugiro ikasketak, hain zuzen ere. Adibidez, basoetara hurbiltzen direnean, garbi mantentzeko ez da lan handirik behar. Ekartzen duten zikinkeriak berriro eramane eta kitto, ez da gehiago egin behar, baina ez dute ulertzen. Ezta hori ere. Horregatik, lasai, Basajaun. Euskal Herriko mendietatik oso urrun dauden beste mendietan berdin gertatzen da».

Ba, txo! Nik neuk konponduko dut. Hemengo irakurle gehienak nahiko jatorrak dira, eta ziur ulertuko dutela. Oso pozik jartzen nauzue mendira hurbiltzen zareten bakoitzean, bisitatxoren bat egiten didazuenean, baina mesedez, ez bota ezer. Zikinkeriak soberan daude hemen. Zigarroren bat erretzen baduzue, kontuz. Botilak edan eta gero eramane hemendik, ekarri dituzuen bezalaxe.

Eta ehiztari madarikatu haiei, bakarrik gauza bat: eramane zuekin kartutxo guztiak, eeh! Mesedez, gutxienez, txukunak izan.

## KAZKARROAN

## Euskalerrria irratia

Hurrengo astean izanen den hamabi orduko saioa dela eta.

Lizentzi ezak bere arazoak ditu nun nahi bazter guztiak nahastu ta mogitu gogor lanean eta ezin errenditu jarraitu nahi dezute hala det aditu hamabi orduetan ez bedi gelditu

Iruñerriko zeru zabal ta urdinak jasoko ditu zuen hitz eta uhinak berriketaldi goxo eta atseginak euskaldundu nahian bazter ta ixkinak alperriakn ez bitez zuen ahaleginak

## BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Herri nafarra
2. Hitz motela
3. Beti
4. Etorkizuna
5. Pisu neurriak



1. Erretzeko
2. Txango
3. Herri nafarra
4. Burin-lokarria
5. Goizaldeak



1. Herri nafarra
2. Narriak
3. Animalia
4. Bazegoen
5. Ibar nafarra



## Zaharrak berri

**Ezkontza pobrerik ez, hileta aberatsik ez.**

Jendeak ez du hiletaz pentsatzen, ahalik eta hobekien biltzeaz baizik.

**Arbizu Sasi txikitik atera eta handian sartu.**

On ez den eginbide bat utzi, eta makurrago hartu.

**Imotz**

—Non ikasi duk hik prantsesa hain ongi?

—Parisen pasatu nitian urte batean hiru uda ikasten.

## Bizi Bizian

# Olaztiko ikastola: 25 urte

**O**laztiko San Miguel ikastolak hogeitabost urte beteko ditu aurten. Nafarroako bigarrena kronologiari dagokionez —Iruñerriko San Fermin ondotik eta Leitzako ikastolarekin batera—, bertako emakume baten gogotik jaio zen 1967an. Milagros Lopez de Goikoetxea olaztiarra izan zen, batzuen laguntzarekin eta beste askoren axolagabekeria gorabehera, herrian euskarazko ikasketak paratzeko lehendabiziko ahalegin eta gogoen sortzailea. Mikaela Aierdirekin batera, aurrera atera zituzten lehendabiziko taldeak, 1976an Altsasun OHO indarrean paratu zen arte. Orduetik aurrera Sakanako ikastolak kooperatiban elkartu ziren, gaur arte iraun duten bezalaxe.

PATXI ULAIAR / OLAZTI

San Miguel ikastola bertako emakume baten gogotik jaio zen 1967an. Milagros Lopez de Goikoetxea, Olaztiko emakume gazteen artean euskaldun bakarrarenetakoa zen garai hartan. Herriko gazteek zeharo galduta zutela, amina zaintzen ibili behar izan zuten luzaroan Milagrosek, eta hortik atxiki zion euskarari.

Orduan, eta haurrak eskolatzeko garaian zituela, Altsasura joan zen, bertan ikastola irekitzeko asmoa zegoelako ustetan. Horrelakorik ez aurkitu, ordea, eta Olaztin bertan zabaltzera bultzatu zuten. Animatu eta egin.

Lehendabiziko pausak bideratzeko, Jose Maria Satrustegi eta Josefina Arregiren laguntza izan zuen. Horiak Iruñeko San Fermin ikastolara —ireki berria hau ere— bidali zuten, han hasia bait zen ikastolen aldeko mugimendua Nafarroan. Ondoren, Nafarroako Gobernura joan, eta hor ere baimena jaso zuen Milagrosek. Baldintza batekin, hala ere: beste pertsona bat bilatzea, klaseak bien artean hasteko.

Ikastola osatzeko, beraz, Mikela Aierdi ataundarraren laguntza izan zuen. Honek urte franko zituen emanak Olaztin, eta hasi ziren lokalak bilatzen.

Gobernuaren baimena lortuta, udalen lokalak eskuratzea ez zitzaizen zailegi izan. Liburutegi zaharreko lokalak gazte elkarte batekin banatu behar izan zituzten, eta hor hasi ziren klaseak. Bertan iraun zuen ikastolak duela zazpi urtera arte.

**HARRERA ONIK EZ HERRIAN** Hasiera guztiak bezalaxe, hauek ere gogorak izan ziren, herrian ez bait zen begi onez ikusi euskarazko



Egungo ikastola, Olaztiko Kale Nagusian.

PATXI ULAIAR

ikastetxea. Horrela, lehendabiziko ikasleak ez ziren bertakoak izan, baizik eta porlandegian aritzen zirenak edota kanpotik etorritako zenbait langileren seme-alabak. Halaber, Olaztin zeuden eskoletan ere harrera txarra egin zitzaion ideia berriari, eta urte askotan, OHO Altsasun paratu arte, arazo besterik ez zituzten izan ikastolakoek, eskoletara pasatzerakoan ez bait zieten ematen eskolaritate titulua.

Izan ere, bi andereñoek ez zuten klaseak emateko titulu egokirik, eta Nafarroako Gobernuak ateratzera behartu zituen, eskolaurreko klaseak eman ahal izateko. Eskolaurrea eta gero, betikoa, eskoletara pasa behar, eta han izugarritzko arazoak aurreko ikasketak onartzeko.

**1976-AN OHO ALTSASUN** Altsasuko ikastolak 1971n zabaldu zituen ateak, eta OHO paratu zuenerako, 1976.

urtea zen. Olaztikoak hamar urte zeramazkin jada. Orduan kooperatiba osatzeko erabakia hartu zen, Olazti eta Uharte-Arakilen arteko ikastola guztiak biltzeko. Arrazoia, begibistakoa: zentru bakoitzak ezin zuen OHO izan, Gobernuak eskatzen zituen ikasle kopuruak ez bait ziren betetzen.

Olazti, Altsasu, Urdiain, Etxarri-Aranatz, Arbizu, Lakuntza, eta Bakaikuko ikastolak, beraz, bildu egin ziren, eta zentru nagusia Altsasun egin zen: Iñigo Aritza ikastola.

1983an, Etxarri-Aranatzen ere OHO paratu zen martxan, eta Altsasun soilik gelditu ziren Bakaikutik Ziordira bitarteko ikasleak.

Egun, herrian egoera franko aldatu da, eta bertakoen artean onespene osoa dauka ikastolak. Ez da hala gertatzen, ordea, Gobernuarekin, ez bait dira dirulaguntzarik jasotzen. Ikastolan kexu

dira baldintza guztiak betetzen dituztela, «baina beti bilatzen dute aitzakiaren bat edo beste. Ez dago borondaterik dirua emateko».

Hogeitabost urte hauetan egindako lana onaren lekuko dira egungo ikasle kopuruak. 38 ikasle eskolaurrean, bertako eskolatan ez dira hamabostera ailegatzuten. Urteak urtera irauten duen kopuruak, gainera.

Zilarrezko ezteiak ospatzeko hiru asteburu hartuko dituen egitaraua prestatu dute. Ikastolaren eguna ekainaren 7a izango da, kalejira, txaranga eta herri bazkariarekin. Maiatzaren 23tik aurrera, baina, pilota partiduak, herri kirola, ikastolaren argazkien erakusketa eta mintzaldiak izango dira.

Agian baten batek bi sortzaile ausartei egin beharreko omenaldiaren falta somatuko du, merezimendu osokoa gainera, baina oraindik ez bide da beranduegi.

## «Euskaldunekin izan genituen iskanbila handienak»

P.U. / IRUÑEA

Milagros Lopez de Goikoetxeak, hogeitabost urte hauetan egindako lana ikusita, «poztasun handia» sentitzen duela dio. «Ikusten ditut gurekin hasi ziren batzuk, jada medikuak edo direnak, eta beren bidetik jarraitu dutenak, euskararekin. Hori da nerretzat garrantzitsuenak».

Ikastolaren berezko lana egiteaz aparte, Olaztin zegoen mentalitatea ere aldatzeko baliagarria izan delakoan dago Milagros, hasi zirenean zeuden topiko okerrak ezabatzeko. «Guk iskanbilak handienak eduki genituen euskaldunekin. Haien artean pentsatzen zuten gutxiago, moztangoak zirela euskaraz eginez

gero. Orain, hori zeharo aldatu da, eta haur guztiak matrikulatu egiten dira ikastolara joateko. Hori pausu handia izan da».

25 urte iraun duen ibilbide honi hasiera ohizkoa ez zela izan, ezin uka. Ez zen bertan euskararekiko kontzientziarik, ez zegoen eskaera handirik, ez zegoen girorik. Baina Milagrosek, berak adierazi duenez, haurrak euskaraz hezitu nahi zituen. Orduan, Altsasura joan zen, bertan zegoen Josefina Arregirengana. Honek euskarazko klaseak ematen zituen eskolatik kanpo, eta harremanetan jarri zuen Jon Amatibia eta Jose Maria Satrustegirekin. Hauek konbentzitu zuten Milagros berak ikastola jar zezan.

«Hori oso fuertea zen niretzat



1975eko ikasleak. Artean soilik eskolaurrea zegoen.

—azaldu du—, ezkondu eta hiru umekin, eta euskarazko klaseak ematen hasi behar! Baina ikastaroak eta hasi ginen egiten, orduko andereño guztiak, eta orduan hasi zen mugimendua».

Lehendabiziko ikasleak herriko etxegalteenak izateak ere mesede handia egin zion ikastolari,

aurriritzi franko puskatu bait ziren orduan. «Nik baneuken nahiko konfidantza zementosen buruzagi zenarekin, eta bere semea bidali zuen gurengana. Horrek indarra izugarria eman zion ikastolari, eta hogeitazortzi umekin hasi ginen. Hori izan zen izugarritzko bultzada».

## Kojon Prieto Azabache

Musika Taldea

**T**xistulari, fanfarre, peña, orfeoi, auroro, rock talde, pop talde eta abar luze bat ezagutzen dituen hirian, Iruñean alegia, talde berria sortu da, Kojon Prieto Azabache y los Guajalotes. Eskroto eta bere mariatxi iru-

ñarrek iraultza musikala egiteko asmoa dute. Rock jaialdiak alde batera utzi eta 'corrido' mexicarrak aldarrikatzen dituzte. Iraultza honen borroka oihua, larunbatean lehen aldiz entzun zen Euskal Herriko hiriburuan. Gora Mexiko!!

# «Gora Mexiko!»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEAN

**EGUNKARIA.**— Azken bolada honetan musika estilo ezberdinak ailegatu dira Euskal Herrira. Sonora Candelak salsa jotzeari ekin dio, eta Negu Gorriak raparekin izugarritzko harrakasta lortu du. Ailegatu al da mexicarrak eta Kojon Prieto Azabache y los Guajalotesen ordua?

**ESKROTO.**— Jendeak musika ezberdina eskatzen du, dibertigarriagoa. Mexicarren ordua izan daiteke hau. Taldea egiteko ideia sortu zenetik horrekin amets egin dut. Nafarroan jendeak betidanik gogoko izan ditu mexicarrak, tradizio handia dago, eta arrakasta izan dezakegula uste dut.

**EGUNKARIA.**— Nola pasatu zarete Rock & Rolla jotzetik mexicarrak jotzera?

**ESKROTO.**— Duela hiru urte, Tijuana in Blue taldean genbiltzala, Mikelek —kitarrajoleak— 'Los Tigres del Norte' taldearen zinta bat ekarri zuen, eta momentu horretan mexicarrak amorratuak bilakatu ginen, orduan sortu zen taldea egiteko ideia. Tijuanaen rolloa zela eta, ezin izan genuen ideia gauzatu. Dena den taldeko batzuk oraindik ere beste talde arruntetan dabilta.

Gero, mozkortzen ginenean horretaz hitzegiten genuen, baina ezer egin gabe. Duela gutxi ideia berreskuratu genuen. Mexicon hiru hilabete eman nituen, eta itzultzerakoan Mikelek mexicarrak jotzearen asuntua proposatu zidan, eta nik, noski, baietz esan nion, hori egiteko irrikitan nengoen eta.

**ESTANIS.**— Iruñean musika talde pilo bat dago. Txistulariak, fanfarreak, peñak, etxean abesten duen jendea, ezkontzetan abesten

duena... baina ez zegoen mexicarrak jotzen zituen talderik, eta hori da talde honen berezitasuna. Ez zuen inork espero mexicarrak jotzen dituen talde iruñarra sortuko zenik, baina horrela gertatu da.

**EGUNKARIA.**— Nola sortu zen taldearen izena, Kojon Prieto Azabache y los Guajalotes, alegia?

**ESKROTO.**— Hasiera batetan izena Los Guajalotes zen. Mexicon antzarrei Guajalote esaten diete, eta guk guajalote hutsak gara... Izena polita zen oso, baina motza, oso motza. Parrandan genbiltzala, mozkor mozkor eginda, Kojon Prieto Azabache-rena sortu zen, eta biak elkartzera erabaki genuen.

**EGUNKARIA.**— Zenbat guajalotek osatzen duzue taldea?

**ESKROTO.**— Gaur egun zortzi gara. Bi kitarrajole, kontrabajolea, armonikajolea, bandurrijolea, saxofoiarekin aritzen dena, perkusioa jotzen duena eta ni neu. Dena den, hemendik gutxira tronpetajole bat eta akordeojole bat sartuko dira taldean.

**EGUNKARIA.**— Joan den larunbatean hiru kontzertu eskeini zenuituzten Iruñean. Goizean Gaztelu enparantzan aritu zineten, arratsaldean Navarrerria kalean, eta gauean Lore Etxean. Nolako izan zen iruñarren harrera?

**ESKROTO.**— Martxa handia egon zen, eta oraindik gutxi entsaiatu dugun arren, nahiko ongi moldatu ginen. Dena den, arratsaldekoa, Navarrerria kalekoa bapateko gauza izan zen. Txarli tximino sainduari omenaldia egin behar ziotela esan ziguten, eta Lore Etxean kontzertua eman baino lehen, gure patroiarri abesti pare bat eskeini nahi izan genion.



Lore Etxeko kontzertu batean.

JOXE

**EGUNKARIA.**— Orain arte gutxi entsaiatu duzuela aipatu duzu. Hemendik aurrera gehiago entsaiatzeko asmoa duzue?

**ESKROTO.**— Bai, beste egunean argi geratu zen oraindik berde xamar gaudela. Hemendik aurrera, astero hiru aldiz entsaiatzeko asmoa dugu. Gainera orain Lore Etxean entsaiatzeko lekua utzi digute, leku mundiala da entsaiatzeko. Oso gustora gaude hor.

**EGUNKARIA.**— Larunbatean en-

tzun zenaren arabera, errepertorio nahiko handia duzue. Abesten dituzuen kanta guztiak bertsioak dira? Ba al duzue abesti propioak?

**ESKROTO.**— Egia esan, dugun errepertorioa ez da oso handia, baina ondo moldatzen gara berarekin. Dena den gogor ekin behar diogu errepertorioa zabalteari. Orain arte abesten dugun guztia bertsioak dira. Jainkoa lagun, hemendik gutxira abesti propioak plazaratuko ditugu.

**EGUNKARIA.**— Zuen abestiak datozen San Ferminetan arrakasta handia eduki dezakete.

**ESTANIS.**— Kristona litzateke hori. Asko gustatuko litzaidake tabernaz taberna, peñak bezala, jotzen ibiltzea.

**ESKROTO.**— Bai, gure asmoa hori da, herriko jaietan aritzea. Oso polita litzateke herriko jaietara joatea gure mexicarrekin. Ostiral batetan autobusa hartu, eta hor musika jotzen aritzea, gero herrira ailegatu eta eta bi egun hor jo eta ke ibiltzea.

**M**exicon antzarrei Guajalote esaten diete, eta gu guajalote hutsak gara. Hala ere, izena oso motza zen. Mozkorra batean sortu zen Kojon Prieto Azabacherena eta biak elkartzera erabaki genuen.

**EGUNKARIA.**— Eta hemendik aurrera zer?

**ESKROTO.**— Ez dakigu zer gertatuko den. Kontzertua ematen hasiko gara, baina nahi duguna musika kalera ateratzea da, Mexicon egiten duten bezala. Errepertorioa haunditzen badugu, gustatuko litzaidake tabernaz taberna abestiak saltzen ibiltzea, han egiten duten moduan, trago baten truke edo eta gero txapela pasatzea. Dena den hemengo jendeak betidanik izan ditu gogoko mexicarrak, eta arrakasta handia izan dezakegu.

NOSKI  
JATOR

ZELDI ERDA